



**OSALAN**

Laneko Segurtasun eta  
Osasunerako Euskal Erakundea  
Instituto Vasco de Seguridad y  
Salud Laborales

## **Nola kalkulatu lan-istripu baten kostua?**

### **SARRERA**

Gastu garrantzitsu bakartzat laneko arriskuen prebentzioa jotzen duen iritzi orokorra dago, eta iritzi hori da, hain zuzen ere, laneko arriskuen prebentzioa enpresetan ezartzeko zailtasun nagusienetakoa bat. Enpresak etekin ekonomikoa lortzeko helburuarekin sortzen dira eta laneko arriskuen prebentzioak epe laburrera inongo etekinik, eta luzera, oso etekin txikiak ikusten dioten inbertsioa eskatzen duela ulertzen dute.

Egia da enpresan laneko arriskuen prebentzio-sistema bat, beharrezkoak dituen ekintzak eta guztiz (arriskuen ebaluazioa, larrialdietako plana, prestakuntza eta informazioa, prebentzio-neurriak, norberaren babeserako ekipoak, etab.) ezartzeak, gastu garrantzitsua eska dezakeela hasiera batean, eta urtero, inbertsio handi samarra egin behar dela, baina, egia ere bada, gastu horrek onura dakarkiola enpresaren ekoizpenari.

Funtzionamenduan laneko arriskuen prebentzioa ezarrita duen enpresa batean, langileek osasun hobea dute eta errendimendu handiagoa ateratzen diote beren lanari. Laneko arriskuen prebentzioa enpresan ezartzeari esker, lan-istripu gutxiago gertatzea lortzen da, eta ondorioz, ekoizpena areagotu egiten da, eta honekin, baita enpresaren etekin ekonomikoa ere. Bi dira ondorio honen arrazoiak: bata zuzena, ekoizpena areagotu egiten delako, eta bestea zeharkakoa, lan-istripuek somarazten dituzten gastuak ekiditen direlako.

Hala ere, orain arte gutxi dira lan-istripu batek sortzen duen kostua balioetsi duten enpresak, prebentzioa ezartzearen kostua baloratu dutenen ondoan.

### **LAN ISTRIPUEN KOSTUA**

Laneko ingurunea asaldatzen duen eta eragindako langileei kalteak dakartzkien bat-bateko gertakaritzat defini daiteke lan-istripu bat. Beraz, lan-istripua, gizarte-kostua ez ezik, kostu ekonomikoa ere suposatzen dio enpresari.

Kostu hauek kalkulatzeko ez zaie beti erraz gertatzen enpresei, lan-istripuei lotuta eta ebaluatzen zailak diren galerak egoten direlako. Kasu gehienetan, istripuaren larritasun-mailaren arabera izaten da, zuzen-zuzenean, eta beraz, zenbat eta larriagoa izan istripua orduan eta kostu handiagoa.

Lan-istripuen kostuak bi motatan sailka daitezke: zuzeneko kostuak, enpresak erraz zenbatu eta kuantifikatu ditzakeenak, eta zeharkako kostuak, egiazki eta zehazki zenbatu ezin gabe, zalantzarik gabe istripuarekin zerikusia dutenak.

### **ZUZENEKO KOSTUAK**

- Istripu egunean, istripua izan duten langileek zein beren lankideek, aginteez, eta abarrek gal ditzaketen orduen kostua.
- Istripua ikertzen enpresako hainbat kidek emandako orduen kostua.
- Istripuaren ondorioz erakunde ofizialek egiten dituzten bisitetan laguntzen ematen diren orduen kostua.
- Istripuarekin zuzenean lotutako beste edozein jardueratan emandako orduen kostua, besteak beste: epaiketara joatea.
- Istripuaren ondorioz deitutako lanuzte edo grebetan galdutako orduen kostua.
- Istripua izan duen langilearen bajak eragiten duen kostua: Gizarte Segurantzako kuotak, borondatezko hobekuntzak, etab.
- Enpresako arreta medikuaren kostua: lehen laguntzetarako materiala, osasun-zerbitzuak emandako orduak, etab.
- Makina geldiarazteak sor dezakeen kostua, bere egoera segurutzat jo arte zigitatuta egoteagatik edo konpondu edo beste bat jarri behar delako.
- Materialen kostua: lehengaiak galtzea, istripuan kaltetutako produktuak, etab.
- Ekipo edo makinaren kostua: istripuan izandako kalteak konpontzeagatik kostua.
- Instalazioak garbitzearen kostua.
- Gertatutako berandutzeagatik sor daitezkeen penalizazioak ordaintzearen ondoriozko gastua.
- Istripuaren egunean galdutako ekoizpenari lotutako kostua.
- Ekoizpena leheneratzeko kostua: aparteko orduen kostua, langileen txandean kostua, azpikontratzearen kostua, etab.
- Istripuak eskatzen dituen gestioetan emandako denboraren ondoriozko administrazioko kostuak.
- Langile berriak kontratatzearekin lotutako kostuak: iragarkien kostuak, hautaketa-prozesuak, kontratazioa, prestakuntza, etab.
- Lanpostuak berrantolatzearen ondoriozko kostuak: ordezkapenak, prestakuntza, berriro trebatu behar izatea, etab.

- Istripua beriz ez gertatzeko ezari beharreko prebentzio-neurrien kostua.
- Auzietarako defentsa juridikoaren kostuak.
- Zigorak, isunak, prestazioetako errekarguak, kalte-ordainak, etab.
- Bidaiei kostua...

### **ZEHARKAKO KOSTUAK**

- Lan-istripuen ondorioz irudi ona galtzeak sor ditzakeen kostuak.
- Kontratazio-galeraren kostuak, arriskuen prebentzioaren ezarpena baloratzen denean.
- Lan-gatazken kostuak: langileen eta enpresaren arteko lan-harremanak okerrera egitea.
- Istripu baten ondorioz langileek adorea galtzeagatik kostua.
- Istripua izan duen langilearen esperientzia galtzearen ondoriozko kostuak.

### **BESTE KOSTU BATZUK**

Kostu hauetaz gain, ezin da ahaztu gaur egun lan-istripuen kasuetan aritzeko fiskal bereziak sortu direla. Egoera hau, dagozkion isunak ez ezik, espetxe-zigorak ere sortzen ari zaie enpresa-arduradunei. Zaila da espetxe-zigor hauek ekonomikoki neurtzea, bai enpresa-mailan baita pertsonalki ere, baina, ez baina gabe, atxikitako kostua ez litzateke ahuntzaren gauerdiko ezutla.

Amaitzeko adierazi behar da, lan-istripuek enpresei kostu handiak badakarzkie ere, hau ezin dela alderatu, pertsonari, familiari edo gizarteari sortzen dietenekin, eta azken hau gainera, askoz zailagoa da neurtzen.

Enpresaren kostuarekin gertatzen den bezala, gizarte-mailako kostu batzuk beste batzuk baino errazago ebalua daitezke. Hasiera batean errazen kalkulua zitezkeen artean honako hauek leudeke: pentsioen kostuak, ezgaitasunen kostuak, arreta medikuaren kostua, gizarte-laguntzaren kostua, aseguruak ordaintzen ez dituzten gastuen kostua, kalte-ordainak, zerga-galeraren kostua.

Bizi-kalitatea, litezkeen etekinak, garapen pertsonala edo etorkizuneko ekoizpena galtzeaz aritzean, ordea, kalkulua zaildu egiten da. Eta are zailagoa da lan-istripu batek eragin ditzakeen mina, nahigabea edo aurretiazko heriotza neurtzea.

Informazio gehiagorako, kontsultatu ondorengo argitalpena OSALANen web orrian: "Laneko Istripuen Kostuak Euskadin. 2005. urtea".

[www.osalan.net](http://www.osalan.net)

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL